

# 48

LAN-KOADERNOAK  
CUADERNOS DE TRABAJO  
WORKING PAPERS

## Emakumeek bakearen alde egiten duten aktibismoari buruzko oharrak

Irantzu Mendia Azkue

HEGOAk –Nazioarteko Ekonomia eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua– herrien giza garapen jasangarria bultzatzea du helburu. Bere xedea garapen arazo eta nazioarteko elkarkidetzan ezagutza eta ikerketa bultzatzea da, egiten dituen lan eta ikerketen bidez, eta gizartearen sentsibilizazioan eragitea berdintasun eta elkartasunaren ikuspegitik. Lana atal hauetan egituratzen du: dokumentazioa, formakuntza, garapenerako sentsibilizazioa eta heziketa, aholkularitza eta ikerkuntza. Garapen gaietan Dokumentazio Zentro espezializatu bat du Bilbon, eta garapen heziketarako Baliabide Didaktikoetarako Zentro bat Vitoria-Gasteizen.

CUADERNOS DE TRABAJO/LAN-KOADERNOAK bere kolaboratzaileek egindako lanak zabaltzeko bilduma da, bai eta garapena hobeto ulertzeko lagungarri diren testuak hedatzeko ere.



# Emakumeek bakearen alde egiten duten aktibismoari buruzko oharrak

Irantzu Mendia Azkue

**Irantzu Mendia Azkue** Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuko (HEGOAko) ikertzailea da Euskal Herriko Unibertsitatean. Laneko Koaderno honen oinarrian, Irantzuk “Emakumeak gatazka-egoeretan” izeneko mintegian aurkeztu zuen txostena dago. Mintegi hori Bilbon eta Bartzelonan egin zen, 2008ko otsailaren 19tik 21era eta 2008ko otsailaren 25etik 27ra, hurrenez hurren, eta Hegoa Institutuak eta ACSUR-LAS SEGOVIAS elkarteak antolatu zuten.



Argitalpen hau "Generoa Garapenerako Hezkuntzan: Iparra-Hegoa eztabaida-gaiak emakumeen agenda politikorako" izeneko proiektuaren barruan dago; beste jarduera batzuen artean, Garapenerako Lankidetzan feminismoa sartzea ahalbidetuko duten oinarritzko gaiet buruzko gogoeta egiteko espazioak sortuko dira, eta, era berean, laguntzarako materialak eta tresnak sortuko dira, emakumeen berdintasun ezari, desberdintasunari eta mendekotasunari aurre egiteko.

Laguntzailea:



Finantzaileak:



HEGOA

[www.hegoa.ehu.es](http://www.hegoa.ehu.es)

(UPV/EHU) Zubiria Etxea  
Lehendakari Agirre etorbidea, 83  
48015 BILBO

Tel.: 94 601 70 91 • Faxe: 94 601 70 40

[hegoa@ehu.es](mailto:hegoa@ehu.es)

Arabako Campus-eko Liburutegia UPV/EHU

138 kutzatila - Nieves Cano, 33  
01006 VITORIA-GASTEIZ

Tel. • faxe: 945 01 42 87

[hegoagasteiz@ehu.es](mailto:hegoagasteiz@ehu.es)

Emakumeek bakearen alde egiten duten aktibismoari buruzko oharrak

Irantzu Mendia Azkue

Hegoa Lan Koaderno

48zk.

Otsaila 2009

L.Z.: Bi-1473-91 • ISSN: 1130-9962

Euskerazko itzulpena: Labayru Institutua

Inprimaketa: Lankopi, S.A.

Diseinua eta Maketazioa: Marra, S.L.



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 2.5 Generikoa Espainia

Dokumentu hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Aske zara lan hau kopiatzeko, banatzeko eta publikoki hedatzeko, betiere kontuan hartuta lanaren kredituak aitortu behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza xedetarako erabili. Ezin duzu lan hau bestelakotu, eraldatu edo lan eratorririk sortu hartatik abiatuta.

Baimen osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/2.5/es/legalcode.eu>

# Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Generoa gerrari eta bakeari buruzko ikerketan	7
3. Emakumeak eta gatazka armatuak: ez egotetik, ikusgai egotera	9
4. Rolen eta esperientzien aniztasuna	11
4.1. Emakumeak biktima gisa	11
4.2. Emakumeak indarkeriaren eragile gisa	12
4.3. Emakumeak bakearen eragile gisa	13
5. Emakumeen erakundeak eta bakearen eraikuntza	15
6. Genero-arloko justizia aintzat hartzen duen bake-proiektu baterantz	17
7. Azken iruzkinak	21
Bibliografia	23



# I. Sarrera

Benetan luzea da, ingurune desberdinetan, bakea eraginkortasunez bilatu duten emakumeen eta emakume-erakundeen historia; baina, hala ere, azken urteotan baizik ez da emakume horien historia berreskuratzen eta baloratzen hasi. Gaur egun, emakumeen erakundeek bakea eraikitzeko lanetan betetzen duten zeregina nazioarteko agentzia eta gobernuz kanpoko erakunde humanitario gehienen hitzaldien barruan dago, batez ere, 2000. urteko urrian Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak *Emakumeak, Bakea eta Segurtasunari* buruzko 1325 zenbakiko Ebazpena onetsi zuenez geroztik.

Hitzaldi horretan, hainbat interpretazio egiten dira emakumeek bakearen aldeko aktibismoan duten parte-hartzeari buruz.

Hortaz, bada, lan honen bidez, alde batetik, emakumeen nor-tasunaren eta bakearen arteko elkartze horren atzean dauden ikuspegi batzuen arazoak aztertu nahi ditugu, eta, bestetik, emakumeek bakearen alde egiten duten lanean dauden baterako osagaiak zehaztu nahi ditugu –testuinguruaren arabera desberdintasunak alde batera utzita–, osagai horien bidez, generoari berariaz dagokion bakearen aldeko aktibismora iritsi ahal izateko. Lan hau ez da sakona izango, baina, nolana ere, esparru teorikoko osagai batzuk azaldu nahi ditu gatatzeko armatua dagoen lekuetan dauden emakumei buruz, batez ere emakume horiek bakearen eraikitzaile edo eragile gisa egiten duten zereginari buruz.



## 2. Generoa gerrari eta bakeari buruzko ikerketan

Lan honetan, soziologia eta historia feministak hasieran zehaztu zuten eran ulertuko dugu *genero* kontzeptua. Horren arabera, generoa “*sexuen artean hautematen diren desberdintasunetan oinarrituta dagoen eta gizarte-harremanak eratzen dituen osagai bat da, eta botere-harremanak irudikatzeke era nagusietako bat ere bai*” (Jacobson, 1999: 176). Gizarteko harreman-mota berezi horiei *generoko harremanak* esaten zaie, eta harreman horiek gizakien arteko eragin gehienak mugatzen dituzte. Generoko harremanak gizartean eraikitzen dira, eta, beraz, alda daitezke. Izan ere, ez daude biologikoki mugatuta, eta ez dute nahitaz harmonikoak izan behar; aitzitik, gerta daiteke haien bereizgarriak aurkakotasuna eta gatazkak izatea. Gatazka horiek gizarteak mugatzen dituen, itxura desberdinak har ditzakete, testuinguruaren eta gizarteko inguruabar berezien arabera. Alabaina, gehienetan, gatazka horien jatorria hauxe da: gizonak menderatzen duela eta emakumea haren mende dagoela.

Hala, bada, generoak garrantzi berezia izan behar du gerra eta bakeari buruzko azterketan, hain zuzen, harremanen arloan, generoak argi islatzen baitu gizarteko gatazka-mota guztien azpian dauden botere-harremanen era bat. Generoa gizartearen eraikitza batenez, ezagutza, jabetza, sarrerak, erantzukizunak eta eskubideak era desberdinean banatzen dira gizonen eta emakumeen artean. Bestalde, generoa da, izan ere, sexuen arteko botere-harreman asimetrikoak egituratzen dituen osagaia. Hortaz, generoaren azterketa egitea oso lan baliagarria da, bai, behintzat, behar bezala islatu nahi badugu “*gizonak eta emakumeak era desberdinetan daudela harrapatuta boterea eta baliabideak eskuratzeko borroketan, batzuek nahiz besteek dituzten nortasun desberdinen bidez, baliabideak esku-*

*ratzeko eta kontrolatzeko dituzten sarbide desberdinen bidez, eta generoko ideologietan izaten diren aldaketan bidez*” (Byrne, 1996: 32).

Alabaina, historian barrena, gatazkak aztertu direnean, ez da kontuan hartu genero-aldagaia. Gerrari buruz egin diren ikerketetan ez da genero-aldagaia kontuan hartu, eta hori nahita egin da, ikerketa horietan tradizioz “unibertsaltzat” jo izan dena, berez, gizonezkoen esperientzien eta narrazioen emaitza baizik ez baitzen. Gerra eta bakea aztertzeko ikuspegi horri egin zaion erronkarik handienetako bat gaur egungo feminismoak egin dio, genero kontzeptua era sistematikoan erabili duelako Gizarte Zientzietan, aztertzeko kategoria gisa.

Ikerketa feministek premisa hau hartu dute abiaburutzat: “*Tradiziozko teoriak aplikatu dira, eta, hala, zaila da ulertzea emakumeek gizarteko bizitzan duten parte-hartzea ulertzea edota generoak gizonen jarduerak baldintzatzen dituela ulertzea (‘gizakiaren jarduerak’ gisa irudikatu beharrean)*” (Harding, 1987: 3). Horrenbestez, hirurogeita hamarrek hamarkadatik hona, ikerketa feministak ahalegina egin du historikoki “gizakiaren ezagutza” modura aurkeztu zaigunaren dekonstrukzioa egiteko, eta errealitatearen interpretazio sakonagoak eraikitzeke, hain zuzen, emakumeak gizarteko kategoria gisa aintzat hartzen duten interpretazioak egiteko.

Emakumeek –gizonekin batera– gizarteko prozesu guztiak sortzeko eta birstortzeko lanetan parte hartzen dutela onartu ondoren, aditzera eman dezakegu, emakumeak prozesu horietan azaltzen ez badira, kontua ez dela emakumeak ez direla gai



gizarte-eragile izateko edo ez dutela horretarako interesik; ez, kontua da emakumeak nahita uzten direla alde batera, baztertuta edo ikusezin bihurtuta. Ikuspegi feministatik, emakumeek gizarteari egin dioten ekarpena ikusezin bihurtzea genero aldetik dagoen desberdintasunaren adibide argia da. Ikusezintasun horri lotuta, emakumeak ez dira ekintzako subjektu gisa agertzen gizartearen eraikuntzan; aitzitik, patriarkatuaren biktima dira. Horrenbestez, feminismoren helburua hauxe da: *“emakumeen autodeterminazioa lortzea, hau da, emakumeak munduko egile bilakatzea, dagozkien baldintzetan”* (Andermahr *et al.*, 2000: 13). Hala ere, gogoan izan behar da, maila, talde etniko, gizarte-estatus eta bereizteko dauden beste eragile batzuen arabera, emakumeen artean hainbat desberdintasun daudela, eta desberdintasun horiek eragina dutela emakumeek ekiteko duten gaitasunaren mailan.

Laurogeita hamarreko hamarkadatik hona, feminismoak gizarteko errealitateaz egin duen “dekonstrukzioa” erabili da gatazkak aztertzeke lanetan; eta horrek aukera eman digu emakumeek gerrari buruz kontatu dituzten narrazioak eta izan dituzten esperientzien lekukotzak biltzeko eta ezagutzera emateko. Bestalde, era horretan, ondo egiaztatu ahal izan da gerrak inpaktu desberdina duela gizonengan eta emakumeengan, eta generoa dela desberdintasun horren arrazoia. Orobat, argi frogatu da gatazka armatuek aldakuntzak sorrarazi ohi dituztela genero-erloko harremanetan, eta, aldakuntza horien ondorioz, litekeena dela harreman horiek desegonkortzea, berriz zehaztea edota doitzea.

Aurrerapenak izan badira ere, gatazkak ebazteko esparruan, oraindik ez da ondo onartzen generoa sistematikoki sartzea, aztertzeke tresna gisa. El-Bushra-k honelaxe esan zuen: *“gatazkak aztertzean, normalean, ez da aintzakotzat hartu generoa ikertzea oso alderdi aberasgarria izan zitekeela gatazketan dauden egile desberdinek dituzten motibazioak ulertzeko, edota generoa ikertzeak lokarriak josi zitezakeela, alde batetik, alderdi pertsonalaren eta, bestetik, instituzioen, joeren, eta interesen artean, hala tokian bertan, nola estatuan edota nazioartean”* (El-Bushra, 2000: 66).

Arlo berezi honetan genero-ikuspegia barne hartzeak izan dezakeen eraginkortasuna aztertze aldera, hainbat ikertzailek

maila jakin batzuk zehaztu dituzte, gizarte-egaztutan dauden arlo desberdinetan *generoa sartzeko* prozesuan; zehazki, honako hauek (Pankhurst eta Pearce, 1998: 155-156):

1. Hasierako mailan, dauden gabeziak bete, eta emakumeak ikusgai jarri nahi dira aztergai diren egoera guztietan.
2. Bigarren mailan, datuak biltzeko eta aztertzeke dauden ikuspegi mugatuak gainditzen hasi nahi dira, eta, era horretan, nolabait zuzendu nahi da errealitateari era sistematikoan gizonetzkoen ikuspegitik begiratzeak sorrarazten duen distortsioa.
3. Hirugarren mailan, genero-erloko harremanen azterketa gailentzen da: eta, beraz, ez du hainbesteko garrantzirik emakumeen eta gizonen egoera bakoitza bere aldetik ikertzen duen azterketak.
4. Laugarren mailan, diziplinaren eraikuntza teoriko osoa berraztertzen da, generoa kontuan hartzeko, baina, aldi berean, emakumei gizarteko kategoria gisa lehentasunik eman gabe.
5. Bosgarren eta azken mailan, galdera hau egiten diogu geure buruari: “Hemen, generoak zein desberdintasun zehazten du?”; eta galdera horrek diziplina jakin bateko joera nagusia izan behar du, eta, hala, beraz, ez du ohiz kanpoko jarduera bat izan behar<sup>1</sup>.

Diziplina jakin batean genero-ikuspegia sartzeko dauden maila desberdin horiek kontuan izanda, Pankhurst-ek eta Pearce-k egiaztatu dutenaren arabera, garapenerako azterketen esparru batzuetan *generoa sartzeko* prozesua oso aurreratuta dago, baina beste esparru batzuetan, berriz, lehen mailan dago oraindik, hau da, “emakumeak ikusgai jartzeko” mailan; hala gertatzen da, hain zuzen, nazioarteko harremanetan edo gatazkak ebazteko esparruetan. Maila hori gehienbat deskripziozkoa da, eta ikerketan egiten den ahalegin nagusia emakumeak gizarte-egoera guztietan identifikatzea da: emakumeen jarduerak eta esperientziak deskribatzen dira, eta errealitateari egiten dioten ekarpena adierazten da, eta ekarpen horren bidez eraginkortasunez sorrarazten duten errealitate horrek emakumeentzat zein esanahi duen azaltzen da.

<sup>1</sup> Maila honetan deskribatu duguna izendatzeko ingelesez erabiltzen den hitza “mainstreaming” da. Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren arabera “gender mainstreaming” kontzeptua hauxe da: *“planifikatutako ekintza orok gizonentzat eta emakumeentzat izan ditzakeen ondorioak ebaluatzeke prozesua, arlo eta maila guztietako legeak, politikak eta programak barne hartuta. Estrategia bat da, eta, haren bidez, emakumeen eta gizonen kezak eta esperientziak barne hartu nahi dira, politikak eta programak diseinatzeke, ezartzeke, gainbegiratzeko eta ebaluatzeke osoko dimentsio gisa, politika, ekonomia eta gizarteko esparru guztietan, hartara, emakumeek eta gizonen onura berbera izan dezaten, eta desberdintasunak betiko iraun ez dezan”*. International Alert (2002), Gender Mainstreaming in Peace Support Operations: Moving Beyond Rethoric to Practice.

### 3. Emakumeak eta gatazka armatuak: ez egotetik, ikusgai egotera

Zalantzarik gabe, Cynthia Enloe ikertzaile aitzindarietako bat izan da emakumeak ikusgai jartzeko lanean, aztertu dituen egoera guztietan *non daude emakumeak?* galdera nagusiari erantzuna ematen ahalegindu delako. Nazioarteko harremanen ikuspegitik, Enloe-k lan zabala egin du, eta, gehienbat, maskulinitasunaren, militarismoaren, gerraren eta derrigortutako eta antolatutako prostituzioaren artean dauden loturak aztertu ditu (Enloe, 1988; 1993).

Enloe-k utzitako lorratzari jarraiki, beste egile batzuek, esate baterako, Carolyn Nordstrom-ek, *non daude neskek?* galdera egin dute, gerran dauden alderdietako haurren eta, bereziki, nesken esperientziak nabarmentzeko. Zehazki, Mozambikeko gatazka armatua aztergai hartuta, Nordstrom-ek argi salatu du nazioarteko erkidegoaren diskurtso orokorrak isildu egiten dituela haurren derrigortutako prostituzioa eta sexu-indarkeria bezalako gaiak. Isiltasun hori “ikusezin bilakatzeko edo saihesteko politika” zehatz baten barruan dago, politika horren atzean elkarren artean lotuta dauden nazioz gaindiko instituzioen sistema konplexu bat dago, eta, azkenean, instituzio horiek onura ateratzen duten nesken esplotazio sexualaren bidez, hala gerra garaian, nola “bake” giroan (Nordstrom, 1999).

Era horretako ikerketetan atera ohi den ondorio bateratu bat da, generoari dagokionez, ez dagoela egitura edo instituzio neutralik nazioarteko harremanetan. Aitzitik, estatua, armada edo nazioz gaindiko merkataritzako egiturak bezalako instituzioetan, “*gizonen eta emakumeen artean, desberdintasunak izaten dira, gizarite- eta ekonomia-arloko roletan; eta, era berean, gizontasunaren eta emetasunaren ikurrak erabili ohi dira instituzio horiek dituzten helburuekiko elkartasuna sustatze aldera*”

(El-Bushra, 2000). Esate baterako, militarizatuta dagoen gizarte batean, emakumeek eta gizonen tradizioz izan dituzten rola areagotu egiten dira, armada oso polarizatuta dauden genero-identitateko ideien mende dagoelako erabat. Gainera, maiz, gizonen “gizontasuna” nabarmentzen da, borrokalariak izan daitezten, eta, emakumeei dagokienez, berriz, bestelako kontuak espero dira: gizonen babestu behar duten herrialdeko edo talde etnikoko hurrengo belaunaldiak hezteaz eta zaintzeaz arduratu daitezten. Bestalde, kasu gehienetan, gerra dagoen bitartean, armadek eta dauden era guztietako talde armatuek gizontasun oldarkorraren ideia berezi bat sustatzen dute; eta ikuspegi hori, azken batean, emakumeen aurkako indarkeriari lotuta dago.

Nazioarteko harremanen sistema barruan, generoari dagokionez, ez dago egitura edo instituzio neutralik. Hori horrelakoa den neurrian, gatazka armatuetan indarkeriaren ondorioak konpontzeko, arintzeko edo horietan bitartekotzan aritzeko izaten diren nazioarteko esku-hartzeak –hala gobernua egiten dituenak, nola bestelakoak– ez dira neutralak generoari dagokionez, eta, beraz, esku-hartze horiek inpaktu desberdina izaten dute beti, gizonen eta emakumeen gizaritean duten mailan.

Hori gorabehera, sarritan, esku hartzeko politikak diseinatzen eta proiektuak bertatik bertara ezartzen direnean, ez da aintzatzat hartzen emakumeen beharrezan eta interesak barne hartu behar direla, gizonen beharrezan eta interesak kontuan hartzen diren bezalaxe. Era berean, ez da kontuan izaten oso garrantzitsua dela behar bezala jasotzea zein modu desberdinetan bizi eta aritzen diren gizonak eta emakumeak gatazkak diren bitartean.



## 4. Rolen eta esperientzien aniztasuna

Gatazka armatuetan indarkeria erabiltzen da –pertsonek artekoa, estatuak berak sorrarazten duena edo matxinatuek egindakoa–. Indarkeria hori, gehienbat, gizonetako egiten dutenez, halako irudi estereotipatu batzuk sortu dira; eta, irudi horien arabera, gizonak indarkeria egiten dute, eta emakumeak, berriz, indarkeria hori jasaten duten biktimak izaten dira. Hala, bada, tradizioz, emakumei ukatu egin zaie gatazka armatuetako ekintzen subjektua izateko gaitasuna, era batekoa zein bestekoa; eta, horrenbestez, ez ikusia egin zaie emakumeek gizartearen eragile gisa izan dituzten era guztietako esperientziari.

Joan den hamarkadan gatazka armatuen motetan izan diren aldaketan ondorioz, nolabait aldatu da konbentziozko irudikatze hori, gizonak aktiboak eta emakumeak pasiboak direla dioen irudia. Gerra Hotza bukatu zenetik orain arte izan diren gatazka armatu gehienak barne gatazka izan dira. Gatazka horiek oso konplexuak izan dira, haietan eragile askok hartu baitute parte, hala Estatuko eragileek, nola Estatukoak ez direnek; eta, gainera, gatazka horietan, biztanle zibilak izan dira indarkeriaren helburu nagusia. Horrelako inguruetan, biztanle guztiak izaten dira gerraren biktima, hala gizonak nola emakumeak; baina, aldi berean, biztanle guztiak dira indarkeria bultzatzen duten edo indarkeriari aurre egiten dioten eragileak eta, aldi berean, denak ari dira gatazken ondorio txarretatik bizirik ateratzeko ahaleginean.

Bereziki azken urteetan, ahalegin handia egin da ikerketetan, emakumeak ikusgai jartzeko; eta, era horretan, emakumeek gerra-garaian dituzten esperientzien eta rolen aniztasuna islatzen hasi da. Azterlan horietan, oinarritzeko da *agentzia* ideia erabiltzea, gatazka konpontzerakoan generoarekin sentikortasun gehiago duen teoria eta praktika bat eratzeko. Bestela, beti joko da –oker jo ere– emakumeak gizartearen biktima direla, eta ez dutela parte hartzen gizartearen errealitatea etengabe (berr)eraiki-

tzeko lanetan. Lata Mani-k, genero-arloko teorialariak, honela esan zuen: *“Feminismoari begira, emakumea biktima gisa hartzen duen diskurtsoa oso garrantzitsua izan da, genero-arloko menderapenak duen izaera sistematikoa dela agerian uzteko. Alabaina, hori kontu handiz erabiltzen ez badugu, edo ‘agentziaren’ ideia dinamiko batekin batera erabiltzen ez badugu, emakumeen irudikapenak mugatuak izango dira, batez ere emakumeak izaki pasiboak direla eta haien gainean jarduten dela irudikatuko baitugu...”* (Mani, hemen aipatua: Andermahr, 2000:14).

Hala, bada, ezinbestekoa da emakumeek indarkeriaren biktima gisa izan duten esperientzia onartzea eta ikustaraztea, baina, aldi berean, oinarri-oinarritzeko da emakumeen jardueraren neurriak ezartzea eta aintzat hartzea, hala emakumeak indarkeria sortzeko eta sustatzeko eragile gisa hartuta, nola bakea eraikitzeko eragile modura.

### 4.1. Emakumeak biktima gisa

Biktima diren aldetik, emakumeek era askotara nozitzen dituzte gatazka armatuaren eta indarkeriaren ondorioak. Gizonak bezalaxe, emakumeak hiltzen, zauritzen, torturatzen eta desagerrarazten dituzte, edota lekuz aldatzen dituzte indarrez; baina, hala ere, gaur egun kontu nabarmena eta zabal-zabal onartua da emakumeek genero-arloko indarkeria-mota berezi bat jasotzen dutela. Hain zuzen, bildutako informazioaren arabera, gatazka armatuetan emakumeek gehien pairatzen duten jazarpen-mota sexu-indarkeria da. Deskribapenen arabera, sexu-indarkeria eta sexu-abusua kontrol patriarkalaren erarik muturrenako eta eraginkorrenetako bat dira, eta, gainera, gatazka armatua eta indarkeria politikoa dauden leku guztietako emakumeen kontakizunetan agertzen dira.

Gatazka armatuetan sexu-indarkeria izaten dela ez da albiste berria. Alabaina, joan den hamarkadatik hona, gero kontzientziazio gehiago dago auzi honekiko, Jugoslavia zaharrek gerra garaian emakume asko bortxatu zituztelako, eta bortxaketa horiei buruzko informazio zabala eman zutelako. Zenbatespenen arabera, Bosnia-Herzegovinako gatazkan, 20.000 eta 50.000 emakume bitartean bortxatu zituzten. Ruandako gerra zibilean bortxatu zituzten emakumeen zenbatekoa, berriz, goiko kopuru horren bost halako izan zen (Turshen, 1998), baina gertaera horrek ez zuen komunikabideetan erdietsi lehenengoak izan zuen oihartzuna. Beste adibide batzuen artean, Mozambique, Uganda eta Zimbabwe herrialdeetako kasuak ekarriko ditugu hizpidera, toki horietan, beste leku askotan bezalaxe, emakumeak era sistematikoan bortxatu eta indarrez bahitu zituztelako, gerrako estrategia modura.

Emakumeen aurkako sexu-indarkeriak, alde batetik, berehalako ondorioak ditu emakumearen osasun fisikoan eta buru-osasunean (besteak beste, haurdun geratzeko edota sexu-transmisioko gaixotasunez kutsatzeko arriskua, esate baterako, Giza Immunoeskasiaren Birusaz kutsatzeko); eta, bestetik, bestelako ondorioak izan ditzake emakumeek beren erkidegoetan egiten duten bizitzan. Adibidez, gerta liteke emakume horiek gizartearen estigmatizazioa jasotzea, bazterkeria pairatzea edo erkidegoak gertatutakoaren errua haiei botatzea. Horrek guztiak esan nahi du emakumeak bi aldiz direla biktima.

Emakume askoren bortxaketei buruzko berri nabarmenak bildu direnez, aspaldi honetan gero eta ugariagoak dira gatazka armatuetan egiten diren bortxaketak giza eskubideen urratze gisa onartzeko egiten diren eskaerak. Bortxaketa gerrako krimenez jotzen hasi zen 1993. eta 1995. urteetan, Jugoslavia zaharra izandakoari begira Nazioarteko Zigor-arloko Auzitegia eta Ruandari begira Nazioarteko Zigor-arloko Auzitegia ezarri zituztenean, hurrenez hurren. Izan ere, Jugoslavia zenari begira ezarritako Auzitegiaren Estutua da bortxaketa gizateriaren aurkako krimenez jotzen duen nazioarteko lehen lege-agiria<sup>2</sup>. Sailkapen horri jarraiki, 2001. urtean Auzitegi horrek eman zuen epai historiko baten bidez, Serbia-Bosniakoak ziren hiru ofizial zigorra ezarri zieten, Serbiako armadak Bosnia-Herzegovinako biztanle musulmanen aurka egin zuen garbiketako etnikoa izan zen bitartean, era

sistematikoan antolatutako bortxaketetan parte hartu zutelako. Epai horrek jurisprudentzia ezarri zuen Nazioarteko Zuzenbidean, eta, haren arabera, jende asko bortxatzea eta sexu-esklabutza gizateriaren aurkako krimenak dira.

## 4.2. Emakumeak indarkeriaren eragile gisa

Kontentziozko irudiaren arabera, emakumeak gatazka armatuen biktima pasiboak eta erugabeak dira. Alabaina, era askotako inguruneetan, emakumeek armak hartzen dituzte, talde armatuetako kide gisa, edo, bestela, indarkeriaren erabilera bultzatzen, sustatzen edo onartzen dute, hala gerra zibiletan, nola nazioarteko gerretan. Hala ere, emakumeak biktima unibertsal gisa hautemateko joera izan da; eta, horren ondorioz, mende eta mendeetan barrena, ezin izan da behar bezala aztertu emakumeek indarkeriaren sustatzaile modura bete duten eginkizuna.

Adibidez, askapenerako mugimenduetan eta gerrilla iraultzaileetan emakumeek armak hartuta izan duten parte-hartzea oso gertaera historiko arrunta da. Kasu paradigmatico batzuk aipatzeagatik, hortxe ditugu El Salvador eta Nikaraguako kasuak, Erdialdeko Amerikan; Eritrea, Angola eta Namibia, Afrikan; edota Sri Lanka, Asian. Era askotakoak izaten dira emakumeak talde armatuetan zuzenean parte hartzera bultzatzen dituzten motibaziok, baina, adibide modura, arrazoi hauek aipatuko ditugu: kasu batzuetan, emakumeak beren borondatez engaiatzen dira, dagokien talde etnikoak, mailak edo erkidego nazionalak dituen interesen alde borrokatzeko; beste kasu batzuetan, berriz, emakumeak harrapatuta geratzen dira, beren borondatez bestera, talde armatu jakin batzuek kontrolpean dituzten lurraldeetan, eta, azkenean, talde horietan ematen dute izena, bizirik atera ahal izateko.

Azkenik, gerta liteke emakumeek beren kabuz gerrillan sartzea erabakitzea –landa-guneetako emakume gazte batzuek, adibidez, hala erabakitzen dute–. Izan ere, era horretan, beren familien eta erkidegoen kontrol zapaltzailetik ihes egitea lortzen dute, familia eta erkidego horiek tradiziozko portaera eta bizimodua ezartzen baitiete emakumei, hau da, etxeko lanak egitera murriztuta dagoen bizimodua. Kolonbian bakearen alde lan egiten duen ekintzaile batek era honetan azaldu zuen ema-

<sup>2</sup> Tipifikazio horren arabera, bortxaketa jazarri ahal izateko, ondo frogatu behar da ekintza hori “nazioari, politikari, etniari, arrazari edo erlijioari lotutako arrazoietan oinarrituta, biztanle zibilen aurka egindako” eraso masibo edo sistematiko baten barnean zegoela. Estatutu hori arrakasta handia izan zela jo zen, genero-arloko krimenak aintzat hartu zituelako, eta krimen horien ezaugarri bereziak onartu zituelako. Horrez gain, gertaera garrantzitsua izan zen, geroago Nazioarteko Zigor-arloko Auzitegi iraunkorra eratu baitzen, eta auzitegi horrek nazioarteko justiziaren barruan txertatzen baititu genero-arloko krimenak. MESIC, V. (2001), *The Status of Rape as a War Crime in International Law: Changes Introduced After the Wars in the Former Yugoslavia and Rwanda*, MA Thesis, South Eastern European Women's Legal Initiative (SEELINE).

kumeek, mugikortasun eta askatasun pertsonal gehiago lortzeko, beren borondatez egiten duten bilaketa hori: “*Neska nekazari batzuek ihes egiten dute beren familien kontrol bertsiatik, eta gerrilletan sartzen dira. Hala, bada, hori mugitzeko eta askatzeko modu bat ere bada; nolabait ere, gerrillak gune bat betetzen du, aukera jakin batzuk eskaintzen dizkie neskei, eta, era horretan, neskek borrokatzen ikasten dute, armak hartzen dituzte, adiskidetasun-mota zehatz hori aurkitzen dute, laguntasuna, elkartasuna. Hortaz, bada, neska horiek ez dute emakumeen rolik betetzen, familia barruan esleitu zizkieten eta emakumezkoen hain atxikita dauden rol horiek, haiengandik espero zenaz bestera*” (Gladis Giraldo-ri egindako elkarrizketa, 2002).

Lekukortza horrek aurreratzen duen eran, gatazka-egoeretan dauden emakumei buruz egin diren azterlanetatik atera den ondorio nagusietako bat hauxe da: emakume askok, gerrillari laguntzeko baseetako kide modura edo borrokalari gisa, zuzenean parte hartzen dute gatazketan, eta, horren ondorioz, rol berriak betetzen dituzte, ordura arte gizartean haientzat debekatuta zeuden rolak; era horretan, konfiantza gehiago izaten dute beren buruarengan, eta aukera dute trebetasun berriak ikasteko. Horrek guztiak, jakina, eragina du genero-arloko harremanetan, batez ere ordura arte gizonen eta emakumeen artean zeuden botere aldeko desorekan.

Hala ere, gatazka-egoerak ekitate gehiago lortzeko izan ditzaketen ondorio onen irismena oso aldakorra izaten da, hala ondorio horien maila, nola iraunkortasuna. Izan ere, askotan gertatzen da, behin gatazka bukatu ondoren, emakumei ez dietela aintzatesten gatazkan egin duten zeregina, eta, beraz, gatazka iraun duen bitartean genero arloko ekitate gehiago lortzeko botere aldetik egin diren aldaketak ezabatzen direla, eta berriz ezartzen dela aurreko *status quo* delakoa<sup>3</sup>. “Gatazka ondoko atzerakada” horren ondorio zuzenetako bat da, hain zuzen, bakerako trantsizioa egiten ari diren herrialdeetan normalean diseinatzen eta abian jartzen diren Desmobilizazio, Desarmatze eta Berrezartzeko prozesuetan, emakume borrokalari ohiek pairatzen duten bazterkeria. Aldi berean, emakume horiek bere erkidegoaren gizarte-zigorra jasotzen dute, gatazka izan den bitartean, haiengandik espero zenaz bestera, emakumei atxikitako rolak bete ez dituztelako (Vázquez *et al.*, 1997).

### 4.3. Emakumeak bakearen eragile gisa

Hala gizonen nola emakumeek, biek dute bakea eraikitzeko indarra; baina, dena dela, emakumearen nortasuna sarriago lotu ohi da borroka saihesten duten metodoekin, gatazka ebazteko moldeekin, eta erkidegoaren onura lortzeko lan egiteko borondatearekin. Ildo horretan, bakea eraikitzeko esparruan aritzen diren ekintzaileek argi onartzen dituzte “*gatazka baten ondorioak jasaten dituzten erkidegoetan, emakumeek bakea eraikitzeko betetzen dituzten rol bereziak eta bereizgarriak*”. Orobat, ekintzaile horiek aditzera ematen dute, itxura denez, emakumeak “*sortzaileagoak eta eraginkorragoak direla bakea lortzeko*” (hemen aipatua: Pankhurst, 2000: 13).

Bakearen eta emakumezkoaren nortasunaren artean oro har egin ohi den lotura horri begira, hemen gai arazotsu batzuk aztertu nahi ditugu, bakearen aldeko emakume ekintzaileen jardura aztertzean aurkitu baititugu. Horretarako, ondoko lerrootan, oraindik konpondu gabe dauden hainbat eztabaida aipatuko ditugu, eztabaida horiek behin eta berriz agertzen baitira bakea eraikitzeko lanean aritzen diren emakumeen eginkizunen azterketan, batez ere ikerketa eta aktibismo feministaren ikuspegitik:

1. Berria ez bada ere, oraindik konpondu gabe dagoen lehenengo eztabaida “esentzialismoa” vs. “desberdintasuna” kontzeptuei dagokiena da. Eztabaida horretan, batzuen iritziz, emakumeak, biologikoki, “berez” daude zehaztuta bakea eraikitzeko, eta gizonak, berriz, berez dira bortitzak. Beste batzuen iritziz, aldiz, gizonen eta emakumeek ez dute berez horrelako izaera “esentzialik”. Azken ikuspegi horretatik, gizakiak berez ez dira ez bortitzak, ez baketsuak; eta gizarte eta politika aldeko eragileak dira “*generoa barne hartzen duen*” izaera eratzen dutenak, hala gerrari nola bakeari dagokionez.
2. Esentzialismo horri lotuta, beste gai hau eztabaidatzen da: ea amatasunean ba ote dagoen unibertsal den zerbait, eta ea zera horrek nola edo hala aurrez halako jarrera harrarazten dien emakumei gerrari erantzuna ematerakoan. Izan ere, oso ugariak dira munduan barrena gerraren aurka azaltzeko antolatzen eta mugitzen diren ama-taldeak. Kasu horretan, barnean pizten zaigun galdera da emakumeek politika arloan dituzten

<sup>3</sup> Gerraosteko ingurune askotan, emakumeek nahitaez hartu behar dituzte atzera berriz tradiziozko rolak, eta horrek lotura du “gatazka ondoko atzerakada” izeneko gertakariarekin. Izan ere, gatazketan, aldaketak izaten dira botere-harremanetan, eta aldaketa horiek onuragarriak izaten dira emakumeentzat; baina gatazken ondoren, aldaketa horiek normalean ez dira sendotzen, arlo askotatik (politika-, erlijio-, gizarte-aldeak...) presioak izaten baitira “normaltasunera” atzera itzultzeko, hau da, generoen artean tradizioz izan diren harremanak berriz ezartzeko. Gatazka armatuen ondoren, hala gizonen nola emakumeek, denek nahi izaten dute bizitza “arrunta edo normala” izan, baina “normaltasunaren” definizioak desberdinak izaten dira gizonentzat edo emakumeentzat, genero-arloko harremanetan –eta, sarritan, gatazkatuak ere bai–. Normalean, gizonen gogor egiten dute eraginkortasunez lehengo egoerara itzultzeko, hau da, generoko hierarkian lehenetsuneko postua berreskuratzeko, eta ez dute inolako aldaketarik egin nahi horri dagokionez.



aktibismoa eta bakearen aldeko konpromisoa ea zein neurritan diren ama gisa duten esperientziaren ondorioa. Testuinguru horretan, “*amatasunaren politika*” izendatzen denak dituen hainbat adierazpideen artean, adibidez, oroz gain nagusitzen dira emakumeek bizitzaren sostengatzaile eta zaintzaile gisa betetzen duten rola nabarmentzen duten erakundeak; izan ere, amatasuna, funtsean, zaintzeko, babesteko eta maitatzeko sentimenduekin lotzen da, eta sentimendu horiek, berez, gorrotoaren eta indarkeriaren aurkakoak dira.

Emakumeek bakearen aldeko lanean duten parte-hartzearen interpretazio horri egiten zaion kritikarik garrantzitsuena da oso hurbil dagoela definizio patriarkalek emakumeek gizartean bete behar duten eginkizunari buruz dioten horretaz. Izan ere, definizio patriarkal horiei jarraiki, emakumeak esleitu zaizkien “rol biologiko” lotuta daude erabat. Horrez gain, interpretazio horren bidez ezin dugu inola ere azaldu zer dela-eta amak diren emakume askok hartzen duten parte eraginkortasunez gatazka bortitzetan, dela talde armatuekin bat egiten dutelako, dela gerra sustatzen edo bultzatzen dutelako. Gainera, emakume horiek hala jokatzeko dute, ama diren aldetik, eta beren seme-alabei etorkizun hobea bermatzeko duten erantzukizunari helduz<sup>4</sup>.

3. Hirugarrenik, oraindik konpondu dagoen beste eztabaida garrantzitsu bat emakumeek armadei dagokienez duten jarrerari buruzkoa da. Gizarteko esparru guztietan gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortu nahi duten postulatu feministen iritziz, emakumeek aukera izan behar dute erakunde guztietan parte-hartze osoa izateko, bai eta armadan ere. Alabaina, feminismoaren ikuspegitik, kontrako argudioa ere agertzen zaigu, alegia, emakumeek ez luketela parte hartu behar denik eta gizarteko instituziorik sexistenean, hau da, gizonen lehentasuna eta emakumezkoen menderapena sustatzen dituzten egiturako eta kulturako formei lotuta dagoen instituzio horretan.

Eztabaida horrek garrantzi berezia hartzen du gerraosteko eraikuntza-lanak egin behar diren inguruneetan,

leku horietan programak diseinatzen eta ezartzen baitira armada eta segurtasun-indarrak berriz egituratzeko. Izan ere, programa horietan generoa aintzat hartzen duen ikuspegi bat aplikatzen denean, horren ondorioz, kuota jakin bat ezartzen da, emakumeek parte har dezaten. Alabaina, programa horiek nekez egiten diete aurre armadak, instituzio modura, dituen printzipioei eta jarrerari; eta, era berean, ez dute prozesurik abian jartzen gizartea desmilitarizatzen. Hala, ere, azken batean, azken bi aukera horien ondorioak askoz ere onuragarriagoak izango lirake emakumeen bizitzari begira.

4. Azkenik, emakumei eta bakearen eraikuntzari buruzko eztabaidan ardatza den beste auzi bat emakumeen talde-ekintzari buruzkoa da. Zalantzarik gabe, gizonen eta emakumeen, biek ala biek hartzen dute parte gerraren aurkako mugimenduetan. Dena dela, egia ere bada, sarritan, emakumeak ugariagoak izaten direla mugimendu horien barruan, eta, noizbehinka, bereizitako erakundeak antolatzen dituztela<sup>5</sup>. Kasu guztietan, emakumeek bakea eraikitzen antolatzen direnean duten modua mugatuta dago, kultura- eta gizarte-arloko eragileek (mailak, etniak, herritartasunak, sexualitateak...) eragina baitute emakumeen gerrako esperientzietan. Testuinguruko, gizarte eta historiako eta nortasunari lotutako eragilek mugatzen duten aniztasun hori kontuan izanda, zalantza hau pizten zaigu: kultura eta gizarte-talde desberdinetakoak diren emakumeek ea zein neurritaraino izan ditzaketen batera generoko kezka berezi berberak, bakea eraikitzen esparruan; hau da, emakumeek “bakearen eta justiziaren” alde edo “gerraren” aurka duten aktibismoaren iturria den politika ea generoari lotuta dagoen edo ez.

Hortaz, bada, eztabaida honen azpian dagoen funtsezko galdera hau da: Desberdina al da emakumeen erakundeek bakea eraikitzen lanetan betetzen duten zeregina, eta gizonen zuzentzen dituzten erakundeek edota erakunde mistoek betetzen duten zeregina? Garrantzirik ba al du genero aldeko desberdintasun horrek? Auzi horri erantzuna eman ahal izateko, ezinbestez aztertu beharko ditugu emakumeek bakea eraikitzen lanetan egin dituzten taldeko ekintzen ezaugarri batzuk.

<sup>4</sup> Inger Skjelsbaek-ek El Salvador eta Vietnamgo emakume gerrillarien adibidea nabarmendu zuen. Izan ere, emakume horiek zuzenean borroka egiteko zituzten arrazoi nagusiak hauek ziren: amatasuna, eta haien familien eta herrialdearen zainza eta babesa. SKJESLBAEK, Inger: “Is Femininity Inherently Peaceful? The Construction of Femininity in the War”, in SKJESLBAEK, Inger eta SMITH, Dan (arg.): *Gender, Peace and Conflict*, SAGE, Londres, 1999, 64. or.

<sup>5</sup> Emakumeek gidatzen dituzten erakundeak edota emakumeek soilik eratzen dituzten erakundeak aldeko lehentasun hori azaltzeko, hainbat arrazoi daude, ingurunearen arabera. Batzuetan, kontua da ez zaiela hain demokratikoa iruditzen buruzagiak gizonenak izatea, eta, gainera, gerta daitekeela buruzagi hori ez egoitea beti indarkeria ez erabiltzearen alde. Beste kasu batzuetan, emakumeek nahiago izaten dute haiek adierazteko dituzten molde bereziak garatzea, ekintza zuzena indarkeriarik gabe bultzatuz. Bestetan, “konfiantzazko” giroa sortzen delako nahiago dute, besterik gabe.

## 5. Emakumeen erakundeak eta bakearen eraikuntza

Oro har, emakumeek egiten duten talde-ekintza ikertzean, salaketa egiteko eta gizartea aldatzeko mugimenduetan emakumeek izan duten parte-hartzeari buruz egin diren azterlanei jarraiki, lau helburu-mota edo lau gai adierazi ohi dira, emakumeek historikoki lau gai horien inguruan antolatu baitute beren burua:

- a. Biziraupen ekonomikoa (janaria, lana, ongizatea lortzea).
- b. Kontu nazionalistak edo arrazarekin/etniarekin zerikusia duten auziak (hala espektro politiko-ideologikoaren eskuinekoak nola ezkerrekoak).
- c. Auzi humanistikoak eta ongizate orokorrari lotuta dauden auziak, hala nola, bakea, ingurumena, hezkuntza publikoa, osasuna, eta abar.
- d. Emakumeen eskubideak.

Dena dela, arlo desberdin horietan emakumeek egiten dituzten ekintzak aztertzean, arazo bat agertzen zaigu, hain zuzen, “politiko” hitza normalean zein modutan erabiltzen den. Emakumeek erkidegoko edo oinarriko taldeetan egiten dituzten jardueretako asko “borondatezko lan”, “karitateko ekintza” edo “gizarteko” jarduera gisa sailkatzen dira, nahiz eta jarduera horiek eragin politiko argia izan.

Horrek ondorioak zuzenak ditu, emakumeen erakundeek bakea eraikitzeke eta gerra ondoko berreraikuntza-lanak egiteko esparruan duten eginkizuna aztertzerakoan. Bake-akordioak lortzeko egiten diren negoziazioak (*peacemaking*) eta

bakeari eutsi ahal izateko egiten diren esku-hartzeak (*peacekeeping*), normalean, gatazkak kudeatzeko eta konpontzeko arlo “politikoan” edo “gogorrean” daudela jotzen da; eta arlo horretan guztiz murriztuta dago emakumeen parte-hartzea. Emakumeak inoiz gutxitan izaten dira negoziazio-mahaietan, ia sekula ez dute parte hartzen trantsizioko gobernuetan, eta, aldi berean, gutxiengo bat osatzen dute bakeari eusteko izaten diren nazioarteko indarren artean.

Hala ere, bakea eraikitzeke (*peacebuilding*), epe luzeagoko ikuspegia izan behar da, gatazkaren azpian dauden eta desberdintasuna sustatzen duten egiturak eraldatu behar direlako, eta oinarritik abiatuta adiskidetzeko ekimena antolatu behar direlako. Arlo hori “leunagoa” dela jo ohi da; eta, beraz, arlo horretan emakumeak egoteak ez du susmo txarrik pizten eta, azken batean, arian-arian balioespen ona izaten du. Ildo horretan, emakumeek bakea eraikitzeke jardueretan duten parte-hartzeari buruzko eztabaidetan, normalean, emakumearen rol biologikoa aipatzen da, bizitzaren zaintzaile gisa betetzen duen zeregina. Ildo horretan, goiko jarduera horiek emakumeek “emazte” eta “ama” modura berez dituzten etxeko rol “naturalen” luzapen baten modukoak direla jotzen da. Bestela esanda, emakumeek politikan duten parte-hartzea justifikatzen da, parte-hartze hori emakumeek zaintzaile gisa betetzen duten rolaen luzapen bat den heinean.

Mota horretako interpretazioek zerikusi handia dute “emakumeak eta bakea” elkartzearen inguruan dauden jarrera esentzialistekin, jarrera horien arabera, emakumeak berez biologikoki mugatuta baitaude “naturaz” bakearen eraikitzaile izateko, eta,



gizonak, aldiz, bortitzak baitira berez. Gorago esan dugunez, jarrera horrek kritika ugari jaso ditu, konstruktibismo soziale-  
tik hurbilen dauden ikuspegiak dituzten joera feministek ideia  
horren aurka baitaude: azken hauen ustez, gizonak eta emaku-  
meek ez dute berez natura “esentzialik”; era berean, emakume-  
ak berez ez dira bakearen eraikitzaileak “naturaz”; aitzitik,  
emakumeak, gizonezkoek gizarteratzeko duten modutik ihes  
egiten duten heinean, gai izango dira askatasun gehiagor-  
jokatzeko eta gizarteraren ikuspegi eraldatzailea eta bortitza  
izango ez dena antolatzen. Belgradeko Beltzez jantzitako  
Emakumeak izeneko erakundeak honela adierazi zuen 1994.  
urtean: *“Gerra hasi zenetik, erakunde bakezaleetako kide gehie-  
nak emakumeak izan gara. Emakumeek erakunde horietan parte  
har dezagun normalizat jotzen da, erkidegoko gainerako pertso-  
nak zaintzea edo haiengatik kezka hartzea, zauritutakoak arta-  
tzea, edota babesia eta kontsolamendua ematea emakumeei berez  
dagozkien jarduerak naturalak direla uste baita. Alabaina, ohar-  
tu gara emakumezkoen ezaugarri horiek gaizki erabiltzen direla  
gurea bezalako gizarte militarizatu batean; eta, gainera, aurkari  
demokratikoez eta bakearen aldeko mugimenduak berak ere*

*eredu patriarkalak errepikatzen dituztela. Hortaz, bada, eraba-  
kia hartu dugu gerrari aurre egiteko dugun jarrera jendaurrean  
azaltzeko, ez berez dagokigun zeregin ‘natural’ bat balitz bezala,  
baizik eta jakinaren gainean egonda egin dugun aukera politiko  
baten modura.”* (Beltzez jantzitako Emakumeak, hemen aipa-  
tua: Anderson, 1999: 231).

Egia esan, arazo handia da emakumeek bakearen alde egiten  
dituzten ahaleginak era horretan ulertzea, hau da, gizarteran  
duten rola-  
ren luzapen “natural” baten gisa ulertzea. Izan ere,  
lan hori “berez dagokiela” jotzen denez, ez da behar den  
moduan aintzatesten, eta emakumeek ez dituzte jasotzen lan  
hori egiteko behar dituzten baliabideak<sup>6</sup>. Era horretan, aktibis-  
mo horri esanahi politikoa kentzen zaio, eta, hala, ikusezina  
izango da ezinbestez. Testuinguru horretan, beste batzuetan  
bezala, emakumeen borroka baztertuta geratzen da, emaku-  
meen arazoei ezikusia egiten zaie, emakumeen esperientziak ez  
dira aztertzen eta, azken batean, emakumeek izan zezaketen  
indarra ez da ia erabiltzen

<sup>6</sup> Emakumeen erakunde guztiek normalean batera izaten duten zailtasun bat da ezin diotela haien buruari eutsi. Izan ere, erakunde horietako gehienak nazioar-  
teko laguntzaren eta emaileen borondatezko laguntzaren mende daude, hori besterik ez baitute beren proiektuak finantzatzeko. Hortaz, erakunde horiek arris-  
ku handia dute aurrera egin ahal izateko.

## 6. Genero-arloko justizia aintzat hartzen duen bake-proiektu baterantz

Emakumeek bakea eraikitzeko lanetan izan duten esku-hartzea azaltzeko garaian, desberdintasun ugari izan dira, bai eta emakumeen erakundeen baitan ere. Hurbilpen desberdinak izan dira, eta horiek argi adierazten dute emakumeek gizarte-maila gisa ez dutela multzo homogeen bat osatzen, eta, era berean, emakumeek bakea sustatzeko eratzten dituzten erakundeak ere ez direla denak era berekoak, historian barrena era askotako helburuak lortzeko eta estrategiak garatzeko sortu eta aritu baitira. Alabaina, ikuspegi aldetik dauden desberdintasunetatik harantz joz, ezaugarri batzuk aipatu nahi ditugu, emakumeek bakearen alde egiten duten ekintza antolatuan behin eta berriz azaltzen direlako. Gainera, hori lagungarria izan daiteke nolabait zehaztu ahal izateko emakumeen indarkeriaren aurkako aktibismoak beste elkarte batzuen aktibismoarekin erkatuta izan ditzakeen desberdintasunak. Hain zuzen, Brock-Utne ikertzaileak desberdintasun hauek aipatu zituen (Brock-Utne, 1989):

- a. *Lotura du gizakiaren bizitzarekiko kezkarekin*: lotura horren oinarria zaintzaren etikari eta bizitzaren iraunkortasunaren logikari buruzko teorizazioa dago. Hori, baina, gaur egungo nazioarteko harremanen sistemari eusten dioten metatze ekonomikoaren eta militarismoaren logikaren aurrez aurre dago.
- b. *Indarkeriazkoak ez diren era askotako teknikak, ekintzak eta estrategiak erabiltzen ditu*: gizarteko beste mugimendu batzuek ez bezala, emakumeen mugimenduak edo

gatazkan dauden edo gaztaka ondoko egoeran dauden lekuetan lanean ari diren emakumeen erakundeek ez dute indarkeria zuzenean erabiltzen beren aldarrikapenak lortzeko bide gisa, ez baita horren adibiderik aurkitu. Indarkeriarik erabili gabe baliatzen dituzten tekniken, ekintzen eta estrategien artean, sinbolismoak zeregin funtsezkoa du bakearen alde aritzen diren emakumeen aktibismoan.

- c. *Politikak gainditzen ditu, eta sarritan nazioak ere bai, eta haren helburua aurkako esparruan dauden beste emakume batzuegana hurbiltzea da*: bestalde, nabarmenak dira bakearen aldeko emakumeen erakundeek beste mugimendu batzuekin lantzen dituzten lokarriak, esate baterako, mugimendu antimilitaristarekin, giza eskubideen aldeko mugimenduekin edota ekologistekin dituzten lokarriak. Dena dela, beti ez dago elkarrekotasunik, edo ez dago antzeko parte-hartzerik, beste talde horiek emakumeen aldarrikapenak aldezteko ematen duten babesaren aldetik.

Bestalde, bakearen aldeko emakumeen talde-ekintzak dituen bereizgarriak zehazte aldera, UNIFEMek *Emakumeak, gerra eta bakea* izeneko txostena prestatu zuen 2002. urtean, eta, horretarako, gatazkan zeuden hamalau tokitan egindako azterketa konparatu bat hartu zuen oinarritzat (toki horiek Ginea, Liberia, Sierra Leona, Ekialde Ertaina, Latinoamerika, Balkanak, Kanputxea, Ekialdeko Timorra, eta Laku Handietako

eskualdea izan ziren). Txosten horren ondorioei jarraiki, hain testuinguru desberdinetan aritzen diren emakumeek bakearen alde egindako ekimenek osagai hauek dituzte batera:

- a. Gaitasuna dute estatuetako mugetatik harantz begiratze-ko, nahiz eta dagozkien gobernuak bakartzearen aldeko jarrerak izan edo, zuzenean, gerraren aldeko jarrerak izan.
- b. Bakeari buruz duten ikuspegiaren oinarria norbanakoaren duintasuna errespetatzea da, berdin dio norbanako horren herritartasuna, etnia edo egoera ekonomikoa zein den.
- c. Haien ustez, bakea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna guztiz lotuta daude.

Azken puntu horri dagokionez, garrantzi nabarmena du azterketa honi “*generoko justizia*” kontzeptua gaineratzea, hau da, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen amaiera. Orobat, funtsezkoa da neurriak hartzea emakumeak gizonen mende egotera bultzatzen dituzten desabantailak konpontzeko (Goetz, 2007). Horrek esan nahi du emakumeek ez dutela bakea lortuko gerrarik ez dagoenean; ez, emakumeek bakea erdiesteko, genero-arloko justizia eta bidezko baldintzak lortu behar dira lehenik. Kontzeptu horrek, beste batzuek baino gehiago, atzera berriz eramaten gaitu botere aldeko harremanen kritikara; izan ere, botere-harreman horiek zehazten dute gizonen eta emakumeen artean gizartean dauden jarreraren asimetria. Kontzeptu politikoagoa da, eta feminismoak proiektu burujabe eta askatzaile gisa duen indarrari eusten dio, edo indar hori islatzen du behinik behin<sup>7</sup>. Bestalde, bakearen aldeko emakumeen erakundeek egiten duten ekintza politikoaren osagai estrategikoetako bat hauxe da: bakearen izena berriz zehaztea, generoko justiziari lotuta dauden irizpideen arabera.

Feminismoak kritika klasikoa egin zion “publiko” eta “pribatu” kontzeptuen konbentziozko bereizketari; eta hortik abiatuta, bakearen aldeko eraikuntzan aritzen diren emakumeen erakundeek laguntza eman dute “gerra” eta “bakea” nozioak ere berriz zehaztu daitezkeen. Izan ere, gaur egun, eta Johan Galtung-ek bake “positiboaren” eta bake “negatiboaren” artean egiten duen bereizketa teoriko ezaguna alde batera utzita, gatazkak konpontzeko nazioartean egiten diren jardueretan, bakea gerraren gabeziarekin lotzen da oraindik, eta, beraz, bakarrik esku hartzen da gatazken adierazpenak agerikoak eta bortitzak direnean.

Hala, bada, generoko kontuei dagokienez, gatazken azterketak era sistematikoan egiten dio ez ikusia emakumeen egoerari. Izan ere, benetako tirorik egon ez arren, sarritan emakumeek egitura-arloko desabantaileri egin behar diete aurre, ekonomia-, politika, eta gizarte-esparruetan, eta, gainera, zuzeneko indarkeriako maila handiei ere bai. Alabaina, hori guztia arlo pribatuan izaten denez, ez da aintzakotzat hartzen. Hala, Belgradeko “SOS Telephone for Women and Children Victims of Violence” erakundeak emakume langileek hauxe adierazi zuten, gerraren ondorioak azaltzerakoan: “...*Kroazian eta Bosnian, gerrak goitik behera aldatu du eguneroko errealitatea, emakumeen bizitza eta guk ‘Laguntzeko lerroan’ egiten dugun lana. Bi urtez gerran egon ondoren, hauxe da ateratzen dugun ondorio nagusia: emakumeen aurkako indarkeria eta emakumeen kontrako gerra une oro dago hortxe, eta toki guztietan gainera; eta gerra garaian ugaltu eta handitu egiten da. Izan ere, gerrak erakutsi digu lerro hauetara jotzen duten emakumeek ondotxo ezagutzen dituztela indarkeriak gerran hartzen dituen molde gehienak. Orain dela gutxi, emakume batek hauxe esan zigun: ‘Ez dut gerraren beldurrik, senarrarekin bizi naizenez, dagoeneko 20 urte daramatzat gerran’*” (Mladjenovic eta Matihasevic, 1996, 121-122).

Hortaz, bada, gerrak duen tradiziozko esanahia hartuta, badira egiturazkoak eta zuzenekoak diren bestelako indarkeria-mota batzuk, behin eta berriz agertzen direnak, eta, horrenbestez, hobe da indarkeria-bakea kategoriak erabiltzea (eta ez erabiltzea gatazka-bakea edota gerra-bakea kategoriak), ez, behintzat, bakea era osoago batean ulertu nahi badugu. Hori bake positiboa izango litzateke, eta bake horren bereizgarria izango litzateke, alde batetik, emakumeen aurkako zuzeneko indarkeriarik ez egotea, eta, bestetik, zeharkako indarkeriarik ere ez egotea eta, horrez gain, mikroegituretan eta makroegituretan desberdintasunik ez egotea.

Argudioko ildo horri jarraiki, eta indarkeria, kontzeptu soziologiko gisa, funtsean, botereari lotuta dagoela oinarritzat hartuta, akademiko batzuek esparru teorikoak garatu dituzte, “genero-arloko indarkeria-motak” hainbat mailatan zehaztu ahal izateko. Esate baterako, El-Bushra-k gatazketan agertzen den genero-aldagaia aztertzean, maila pertsonalaren eta familiarik, nazioko/estatuko edota nazioarteko mailen artean dauden loturak ikertzen ditu. El-Bushra-k dioenez, batez ere, alderdi batzuk zein garrantzitsu diren barneratu behar da ber-

<sup>7</sup> Goetz-ek dioenez, ekintzaileek eta irakasleek gero eta maizago erabiltzen dute “generoko justizia” hitza. Izan ere, gero eta kezka gehiago sortzen ari da, “generoko berdintasuna” edota “generoko ikuspegiak politiken multzoan txertatzea” bezalako kontzeptuek ez dituztelako behar bezala adierazten emakumeek etengabe pairatzen dituzten generoko bidegabekeriak. GOETZ, Anne Marie: “Gender Justice, Citizenship and Entitlements: Core Concepts, Central Debates and New Directions for Research”, in Maitrayee Mukhopadhyay y Navsharan Singh (arg.), *Gender Justice, Citizenship and Development*, IDRC, 2007.

dintasun-egoeran, hain zuzen, hauek: *“biziraupen ekonomikoa eta antolakuntza; arlo pertsonalaren menderapena, afektibitatearen (sentimenduen eta emozioen) menderapena; eta gizarte- eta politika-arloko harremanak”* (El-Bushra, 2000, 78-79). Era berean, Caroline Moser-ek gatazkan eta indarkerian genero-arloko *continuum* bat dagoela esaten du, eta *continuum* hori politika-, ekonomia- eta gizarte-esparruetan sailkatzen du, eta maila bakoitza zehazten du, botereari eusteko –jakinaren gainean egonda edo egon gabe– indarkeria erabiltzen duen botere-mota bakoitzarekin duen harremanaren arabera (Moser, 2001). Era askotako indarkeria-mota horiek –politika-, ekonomia- eta gizarte-arlokoak baitira– batera agertzen dira, batzuetan batzuk besteen gainean azaltzen dira, eta lau maila desberdinetan sailka daitezke; hauek dira mailak: norbanako-arena, pertsonen artekoa, instituzioena eta egiturazkoa.

Esate baterako, Bosnia-Herzegovinan argi antzeman zuten emakume batzuek ez zutela hain errez sinetsi nahi haien aurka egindako indarkeria gizarteko egituren ondorioa izan zitekeela, edota egitura horiek berretsi zezaketela (Cockburn, 1998). Azken batean, gizon askok, aginduak betez, emakumeak bortxatu zituzten, eta, kontu hori azaltzeko, norbanakoari zegozkion patologia ekartzen zituzten ahotara: edariari, drogei, desoreka mentalei, perbertsioari edo “gaiztakeriari” botatzen zioten errua. Horrenbestez, bortxaketak egiten zituzten gizon horiek “arruntak ez” ziren gizonak baizik ezin ziren izan, edo, bestela, etsaien taldekoak ziren gizonak izan behar zuten. Alabaina, gerraosteko garaian etxeko indarkeria areago ugaritu zen, eta, hortaz, auzi honek nabardura zabalgoak hartu zituen: *“Erasoa egiten zizun gizona ‘zutariko’ bat izan zitekeela onartu ahal izateko, kontuak atzera berriz aztertu behar zenituen goitik behera, eta hori oso mingarria zen. Izan ere, gizon ‘arruntek’ ere kolpeak ematen eta bortxaketak egiten bazituzten, orduan, galdera arazotsu berriak azaltzen ziren; eta galdera horiei aurre egiteko, genero arloko harreman eta kultura ‘arruntak’ hartu behar ziren abiaburutzat”* (ibid.: 207). Tokiko emakume-erakunde batzuek kontuak berriz aztertzeko prozesu hori egin dute, eta, era horretan, tradiziozko argudio feminista onartu dute; hau da, azken batean, onartu dute emakumeen aurkako indarkeria ez dela “burutik eginda dauden gizon gutxi batzuen portaera idiosinkrasikoa”, eta, aitzitik, indarkeria hori “gizonek emakumeak kontrolatzeko duten boterearen funtsezko gako bat” dela (Andermahr, 2000: 286).

Hala, bada, emakumeen aurka egiten den indarkerian *continuum* kontzeptua erabiltzea oso baliagarria da bakearen aldeko emakumeen erakundeek egiten duten lanari begira. “Bake” garaietan, indarkeria-mota hau –politika-, ekonomia- eta gi-

zarte-arlokoa dena– ikusezina da gizartean; eta hala da, hein handi batean, kultura aldetik ondo onartzen delako gizonen lehentasuna eta emakumeen menderapena oinarritzat hartzen dituen generoko halako hierarkia bat.

Azkenik, oinarri horretatik abiatuta, aurrera egin dezakegu, bakearen aldeko proiektua genero-arloko justiziarekin batera lantzen ari diren emakumeen erakundeek jarduteko dituzten eremu nagusiak eta ezaugarriak hobeto ulertzeko eta interpretatzeko, betiere, alde batera utzita testuinguruko aldagaiak eta emakumeak jarduteko hartzen dituzten ikuspegi desberdinak. Bakearen aldeko emakumeen aktibismoaren barneko proiektu honek helburu hauek ditu:

- *Bizitzeko baliabideak berreskuratzea.* Bakearen aldeko erakundeak, gehienbat, lanean aritzen dira emakumeek ekonomia aldeko askatasuna berreskuratzen laguntzeko, hartara emakumeek beren biziraupena bermatu ahal izan dezaten eta, aldi berean, beren kargura dituzten pertsonen zaintzaz arduratu daitezten. Gerraostean, gizarteko baliabideak eskuratu behar dituztenean, emakumeek baliabide horiek lortzeko sarbideak mugatuta izan ditzakete, faktore batzuk direla-eta: jabetza-eskubidean dauden mugak; birgizarteratzeko planetatik baztertuta daude; txirotzeko prozesuak emakumeek gidatzen dituzten etxeak kaltetzen ditu gehienbat, eta abar. Egiten diren ekonomiako jardueren artean, ohikoa izaten da hainbat lanbide-arlotan diru-sarrerak sorrarazteko proiektuak ezartzea. Proiektu horiek bi helburu lortzeko egiten dira: alde batetik, laguntza eman nahi da, emakumeek sarrera-iturri bat berreskura dezaten, eta, beste aldetik, eragin terapeutiko bat lortu nahi da, hori lagungarria izan dadin gerrako esperientzien ondorioz emakumeek izan ditzaketen trauma psiko-sozialak kendu eta sendatu ahal izateko. Izan ere, gaur egun, nazioarteko erkidegoak ez du behar bezala aztertzen gerraosteko birgaitzeko arlo hori.
- *Guneak zabaltzea gizarte-ehuna berreirakiki ahal izateko.* Aurrekoari lotuta, bakea eraikitzeko prozesuan sartuta dauden emakumeen erakundeek jarduteko duten beste arlo estrategikoetako bat da guneak eratzea, gatazka armatuak kaltetu dituen familiako eta gizarteko sareak berriz eraiki ahal izateko. Emakumeek dagokienez, horrek esan nahi du gune bat izango dutela beren historiaren eta gatazka-garaian izan dituzten esperientzien berri eman eta garatu ahal izateko. Era horretan, hobeto osatu ahal izango dituzte sendatu gabe dauden zauri horiek. Feministen ikuspegitik gune horiei buruz egin

diren kritika nagusiak izan dira nazioarteko laguntza humanitarioak eta garapenerako lankidetzak garrantzi gutxiegia eman dutela laguntza psiko-sozialeko programak gauzatzeko. Izan ere, programa horiek benetan lagungarriak izan zitezkeen, gatazken kaltea jasan duten pertsonen sendatze-prozesuari begira.

- *Emakumeen aurkako indarkeria salatzea.* Erakundeek duten lehentasunezko beste helburuetako bat genero-arloko indarkeriari aurre egitea da, indarkeria-mota hori batez ere emakumeen aurka egiten baita. Alde batetik, gorago esan dugunez, erakunde hauek indarkeriaren biktima izan diren pertsonen laguntza psiko-soziala emateko programak jartzen dituzte abian. Emakumeak gerragaria biktima bihurtzen direnean, gehienetan, horren atzean dagoen arrazoi nagusia sexu-indarkeria izaten da. Dena dela, emakumeen aurka egiten diren era guztietako indarkeriek hortxe jarraitzen dute gerraostean ere, eta batzuetan ugalduta eta guzti egiten dira (bortxaketa, familia barruko indarkeria, derrigortutako prostituzioa, emakumeen tratua...). Helburu horrekin batera, erakunde hauek eraginkortasunez sustatzen dituzte emakumeen eskubideak –batez ere, sexu- eta ugaltze-arloko eskubi-

deak– eta, orobat, lege-aholkularitzako era askotako zerbitzuak egiten dituzte.

- *Adiskidetzeta.* Bakearen alde aritzen diren emakumeen erakundeek duten beste lan-arlo funtsezko bat honako hau da: adiskidetzeko ekimenak edota gizartean eta politikan dagoen polarizazioa gutxitzeko ekimenak abian jartzea. Esate baterako, osagai etniko garrantzitsua duten gatazkei dagokienez, erkidego etniko desberdinak berriz adiskidetu daitezkeen lortzeko, lankidetzeta bilatzen da mugako lerroen artean, jarduera mistoak antolatzen dira, eta, orobat, laguntza ematen da lekuz aldatuak izan diren pertsonak beren lekuetara itzul daitezkeen. Hori dela-eta, emakumeen erakunde askoren oinarri nagusia barnean hartzea da; ildo horretan, nazio/etnia aldetik dauden desberdintasunei garrantzia kentzen diete eta lanean aritzen dira (bir)gizarteratutako gizarte bat lortzeko. Egoera zeinahi delarik ere, adiskidetzeta lortzeko edo gizartean eta politikan dagoen polarizazioa gutxitzeko, emakumeen erakundeek etengabe eta tinkotasunez aritu behar dute lanean, memoria historikoa aldarrikatzen eta zigorgabetasunaren aurka borrokatzen.

## 7. Azken iruzkinak

Gatazkak aztertzeke tradizioz egin diren hurbilpenek bazterrean utzi dituzte generoak duen garrantzia eta gerrak emakumeengan duen eragin desberdina. Alabaina, irakasle eta ekintzaile feministek egin duten lanak erronka handia egin die tradiziozko hurbilpen horiei. Hortaz, bada, gero eta ikusgarriagoa da gatazketan eta gatazken ondoren emakumeek jasaten duten indarkeriak hartzen dituen formen ugaritasuna. Hala ere, emakumeak soilik indarkeriaren biktima gisa irudikatzen baditugu, ezin izango dugu inola ere jaso emakumeek, hala gerran nola gerraostean, izan dituzten esperientzien ugaritasuna.

Hala, bada, emakumeentzat, ezinbestekoa da, gizarte-eragileak diren aldetik, bizi diren gizarteko egoeran eragina izateko eta egoera eraldatzeko emakumeek dituzten era askotako moduak nabarmentzea, gatazka-egoerak ere barne hartuta. Azken batean, emakumea biktima gisa irudikatzeaz harantz jo, eta emakumeak subjektu politiko gisa duen izaera azpimarratu behar dugu, hori lagungarria izango baita emakumeek bakea eraikitzeke egiten dituzten ekintza antolatutako edo talde-ekintzak hobeto ulertzeko.

Azken urteetan, nazioartean, gero eta arreta gehiago egiten zaie emakumearekin, bakearekin eta segurtasunarekin zerikusia duten auziei. Hartara, gero eta garrantzi gehiago ematen

zaie emakumeen erakundeek bakea eraikitzeke dauden arazoak eraginkortasunez konpontzeke betetzen duten zereginari. Dena dela, diskurtso orokorrean, itxura denez, gero eta garrantzi gehiago hartu dute bakea emakumezkoaren nortasunarekin lotzen duten interpretazioek, lotura hori emakumeen berezko prozesu “natural” baten emaitza balitz bezala; eta, horren ondorioz, ez da behar bezala sakontzen eta ikertzen lotura horren edukia.

Lan honetan ahalegina egin dugu “emakumearen eta bakearen” artean dagoen harremana sakonago aztertzeke, ñabardura guztiak aintzat hartuta, azalpen esentzialistatik ez egiteko asmoz. Izan ere, azalpen esentzialista horiek, azken batean, hustu egite dute emakumeek bakearen alde egiten duten taldeko ekintza eta ezabatu egiten dute ekintza horrek duen eduki politiko garrantzitsua. Honen moduko azterketen bidez, eta ez bestela, ulertu eta azaldu ahal izango dugu, itxura denez, antolatutako emakumeek –ingurune bakoitzean dituzten bereizgarriak gorabehera– baterako kontzientzia bat izaten dutela, gerra garaian eta gerraostean izaten dituzten arazoan genero-arloko bereizgarriei buruz, eta, hortaz, emakume horiek berezko estrategiak eta hautabideak garatzen dituztela, egoera aldatzeke eta indarkeria gainditzeko.



# Bibliografia

- ANDERMAHR, S. *et al*: *A Glossary of Feminist Theory*, Arnold, Oxford University Press, Londres; New York, 2000.
- ANDERSON, Shelley: "Women's Many Roles in Reconciliation", in *ECCP: People Building Peace. 35 Inspiring Stories from Around the World*, European Centre for Conflict Prevention, Utrecht, 1999.
- BOULDING, Elise: "Feminist Inventions in the Art of Peacemaking", *Peace and Change*, 20. lib., 4. zk., 1995, 408-438 orr.
- BROCK-UTNE, Birgitte: *Feminist Perspectives on Peace and Peace Education*, Pergamon Press, New York; Oxford, 1989.
- COCKBURN, Cynthia: *The Space Between Us. Negotiating Gender and National Identities in Conflict*, Zed Books, Londres; New York, 1998.
- ENLOE, Cynthia: *Does Khaki Become You? The Militarization of Women's Lives*, Pandora Press, Londres, 1988.
- ENLOE, Cynthia: *The Morning After. Sexual Politics at the end of the Cold War*, University of California Press, 1993.
- EL-BUSHRA, Judy: "Transforming Conflict; Some Thoughts on a Gendered Understanding of Conflict Processes", in
- JACOBS, Susan *et al* (arg.): *States of Conflict: Gender, Violence and Resistance*, Zed Books, Londres, 2000, 66-86 orr.
- EL JACK, Amani: *Generoa eta gatazka armatuak*, BRIDGE, Institute of Development Studies, Erresuma Batua, 2003. Hemen dago eskuragarri: [www.bridge.ids.ac.uk/reports/conflictos%20armados-overview%20report.pdf](http://www.bridge.ids.ac.uk/reports/conflictos%20armados-overview%20report.pdf)
- FERRIS, Elisabeth. G.: "Women as Peacemakers", in GNANADASON, A. *et al* (arg.), *Women, Violence and Nonviolent Change*, WCC Publications, Geneva, 1996, 2-28 orr.
- GOETZ, Anne Marie: "Gender Justice, Citizenship and Entitlements: Core Concepts, Central Debates and New Directions for Research", in Maitrayee Mukhopadhyay eta Navsharan Singh (arg.), *Gender Justice, Citizenship and Development*, IDRC, 2007. Hemen dago eskuragarri: [www.idrc.ca/en/ev-108814-201-1-DO\\_TOPIC.html](http://www.idrc.ca/en/ev-108814-201-1-DO_TOPIC.html)
- HARDING, Sandra (arg.): *Feminism and Methodology*, Indiana University Press, 1987.
- International Alert (2002): *Gender Mainstreaming in Peace Support Operations: Moving Beyond Rhetoric to Practice*.



- LENTIN, R.: "Introduction: (En)gendering Genocides", in LENTIN, R. (arg.), *Gender and Catastrophe*, Zed Books, Londres, 1997, 2-17 orr.
- MESIC, Vesca (2001): The Status of Rape as a War Crime in International Law: Changes Introduced After the Wars in the Former Yugoslavia and Rwanda, MA Thesis, South Eastern European Women's Legal Initiative (SEELINE).
- MLADJENOVIC, L. eta MATIJASEVIC, D. (1996), "SOS Belgrade July 1993-1995: Dirty Streets", in CORRIN, C. (arg.), *Women in a Violent World. Feminist Analyses and Resistance Across 'Europe'*, Edinburgh University Press, 119-132 orr.
- MOSER, Caroline eta CLARK, Fiona (arg.): *Victims, Perpetrators or Actors?: Gender, Armed Conflict and Political Violence*, Zed Books, Londres; New York, 2001.
- NORDSTROM, Carolyn: "Visible Wars and Invisible Girls, Shadow Industries, and the Politics of Not-Knowing", *International Feminist Journal of Politics*, 1. lib., 1. zk., 1999, 14-33 orr.
- PANKHURST, Donna: *Women, Gender and Peacebuilding*, Lan Koaderno, 5. zk., Gatazkak Ebazteko Zentroa, Bakerako Azterketen Saila, Bradford-eko Unibertsitatea, 2000.
- PANKHURST, Donna eta PEARCE, Jenny: "Engendering the Analysis of Conflict: A Southern Perspective", in AFSHAR, H. (arg.): *Women and Empowerment. Illustrations from the Third World*, Routledge, 1998, 155-163 orr.
- SKJESLBAEK, Inger: "Is Feminity Inherently Peaceful? The Construction of Feminity in the War", in SKJESLBAEK, Inger eta SMITH, Dan (arg.): *Gender, Peace and Conflict*, SAGE, Londres, 1999.
- SORENSEN, Birgitte: *Women and Post-Conflict Reconstruction: Issues and Sources*, WSP Occasional Paper, 3. zk., UNRISD, 1998.
- TURSHEN, Meredith: "Women's War Stories", in TURSHEN, M. eta TWAGIRAMARIYA, C. (arg.), *What Women Do in Wartime: Gender and Conflict in Africa*, Zed Books, Londres, 1998, 1-26 orr.
- UNIFEM: *Mujeres, guerra y paz*, Informe sobre el Progreso de las Mujeres en el Mundo, 2002. Hemen dago eskuragarri: [www.womenwarpeace.org/WWP\\_ES\\_SP.pdf](http://www.womenwarpeace.org/WWP_ES_SP.pdf)
- VÁZQUEZ, Norma. et al.: *Mujeres-montaña. Vivencias de guerrilleras y colaboradoras del FMLN*, Horas y Horas argitaletxea, Madril, 1997.

# LAN-KOADERNOAK

## CUADERNOS DE TRABAJO

### WORKING PAPERS

0. Otra configuración de las relaciones Oeste-Este-Sur. Samir Amin
  1. Movimiento de Mujeres. Nuevo sujeto social emergente en América Latina y El Caribe. Clara Murguialday
  2. El patrimonio internacional y los retos del Sandinismo 1979-89. Xabier Gorostiaga
  3. Desarrollo, Subdesarrollo y Medio Ambiente. Bob Sutcliffe
  4. La Deuda Externa y los trabajadores. Central Única de Trabajadores de Brasil
  5. La estructura familiar afrocolombiana. Berta Inés Perea
  6. América Latina y la CEE: ¿De la separación al divorcio? Joaquín Arriola y Koldo Unceta
  7. Los nuevos internacionalismos. Peter Waterman
  8. Las transformaciones del sistema transnacional en el periodo de crisis. Xoaquin Fernández
  9. La carga de la Deuda Externa. Bob Sutcliffe
  10. Los EE.UU. en Centroamérica, 1980-1990. ¿Ayuda económica o seguridad nacional? José Antonio Sanahuja
  11. Desarrollo Humano: una valoración crítica del concepto y del índice. Bob Sutcliffe
  12. El imposible pasado y posible futuro del internacionalismo. Peter Waterman
  13. 50 años de Bretton Woods: problemas e interrogantes de la economía mundial. Koldo Unceta y Francisco Zabalo
  14. El empleo femenino en las manufacturas para exportación de los países de reciente industrialización. Idoye Zabala
  15. Guerra y hambruna en África. Consideraciones sobre la Ayuda Humanitaria. Karlos Pérez de Armiño
  16. Cultura, Comunicación y Desarrollo. Algunos elementos para su análisis. Juan Carlos Miguel de Bustos
  17. Igualdad, Desarrollo y Paz. Luces y sombras de la acción internacional por los derechos de las mujeres. Itziar Hernández y Arantxa Rodríguez
  18. Crisis económica y droga en la región andina. Luis Guridi
  19. Educación para el Desarrollo. El Espacio olvidado de la Cooperación. Miguel Argibay, Gema Celorio y Juanjo Celorio
  20. Un análisis de la desigualdad entre los hombres y las mujeres en Salud, Educación, Renta y Desarrollo. Maria Casilda Laso de la Vega y Ana Marta Urrutia
  21. Liberalización, Globalización y Sostenibilidad. Roberto Bermejo Gómez de Segura
- Bibliografía Especializada en Medio Ambiente y Desarrollo.** Centro de documentación Hegoa
22. El futuro del hambre. Población, alimentación y pobreza en las primeras décadas del siglo XXI. Karlos Pérez de Armiño
  23. Integración económica regional en África Subsahariana. Eduardo Bidaurrezaga Aurre
  24. Vulnerabilidad y Desastres. Causas estructurales y procesos de la crisis de África. Karlos Pérez de Armiño
  25. Políticas sociales aplicadas en América Latina. Análisis de la evolución de los paradigmas en las políticas sociales de América Latina en la década de los 90. Iñaki Valencia
  26. Equidad, bienestar y participación: bases para construir un desarrollo alternativo. El debate sobre la cooperación al desarrollo del futuro. Alfonso Dubois
  27. Justicia y reconciliación. El papel de la verdad y la justicia en la reconstrucción de sociedades fracturadas por la violencia. Carlos Martín Beristain
  28. La Organización Mundial de Comercio, paradigma de la globalización neoliberal. Patxi Zabalo
  29. La evaluación ex-post o de impacto. Un reto para la gestión de proyectos de cooperación internacional al desarrollo. Lara González

30. Desarrollo y promoción de capacidades: luces y sombras de la cooperación técnica. José Antonio Alonso
31. A more or less unequal world? World income distribution in the 20<sup>th</sup> century.  
¿Un mundo más o menos desigual? Distribución de la renta mundial en el siglo XX. Bob Sutcliffe
32. ¿Un mundo más o menos desigual? Distribución de la renta mundial en el siglo XX.  
Munduko desbertasunak, gora ala behera? Munduko errentaren banaketa XX mendean. Bob Sutcliffe
33. La vinculación ayuda humanitaria - cooperación al desarrollo. Objetivos, puesta en práctica y críticas.  
Karlos Pérez de Armiño
34. Cooperación internacional, construcción de la paz y democratización en el África Austral. Eduardo Bidaurrezaga y Jokin Alberdi
35. Nuevas tecnologías y participación política en tiempos de globalización. Sara López, Gustavo Roig e Igor Sábada
36. Nuevas tecnologías, educación y sociedad. Perspectivas críticas. Ángeles Díez Rodríguez, Roberto Aparici y Alfonso Gutiérrez Martín
37. Nuevas tecnologías de la comunicación para el Desarrollo Humano. Alfonso Dubois y Juan José Cortés
38. Apropiarse de Internet para el cambio social. Hacia un uso estratégico de las nuevas tecnologías por las organizaciones transnacionales de la sociedad civil.  
Social Science Research Council
39. La participación: estado de la cuestión. Asier Blas, Pedro Ibarra
40. Crisis y gestión del sistema global. Paradojas y alternativas en la globalización. Mariano Aguirre  
¿Hacia una política post-representativa? La participación en el siglo XXI. Jenny Pearce
41. El Banco Mundial y su influencia en las mujeres y en las relaciones de género. Idoye Zabala
42. ¿Ser como Dinamarca? Una revisión de los debates sobre gobernanza y ayuda al desarrollo. Miguel González Martín
43. Los presupuestos con enfoque de género: una apuesta feminista a favor de la equidad en las políticas públicas. Yolanda Jubeto  
Los retos de la globalización y los intentos locales de crear presupuestos gubernamentales equitativos.  
Diane Elson
44. Políticas Económicas y Sociales y Desarrollo Humano Local en América Latina. El caso de Venezuela.  
Mikel de la Fuente Lavín, Roberto Viciano Pastor, Rubén Martínez Dalmau, Alberto Montero Soler, Josep Manel Busqueta Franco, Roberto Magallanes
45. La salud como derecho y el rol social de los estados y de la comunidad donante ante el VIH/ SIDA: Un análisis crítico de la respuesta global a la pandemia.  
Juan Garay  
El virus de la Inmunodeficiencia Humana y sus Colaboradores. Bob Sutcliffe
46. Capital social: ¿despolitización del desarrollo o posibilidad de una política más inclusiva desde lo local?  
Javier Arellano Yanguas
47. Temas sobre Gobernanza y Cooperación al Desarrollo  
Miguel González Martín, Alina Rocha Menocal y Verena Fritz, Mikel Barreda, Jokin Alberdi Bidaguren, Ana R. Alcalde, José María Larrú, Javier Arellano Yanguas